

BERARIAZKO SARBIDE-PROBA

Aparailu libre eta finkodun bela Erdi-mailako hasierako zikloa

Helburua da aparailu finko eta libredun bela-nabigazioaren oinarriko teknikak menderatzen direla egiaztatzea, kirol-hastapenaren zereginak garatzeko maila nahikoarekin, 10 korapilora arteko haize-baldintzetan.

Proba gainditzeko, ebaluazio positiboa lortu behar da ebaluazio-irizpide guztietan.

Berariazko proba egitetik **salbuetsita** egongo dira honakoa egiaztatzen duten kirolariak (nahiz eta izen-ematea eta dagokion tasaren ordainketa egin beharko duten):

- Goi-mailako kirolaria izatea.
- Errendimendu handiko kirolaria edo baliokidea izatea aparailu finkodun bela edota aparailu libredun bela modalitateetan.
- Azken bi urteetako epean, Espainiako Bela Errege Federazioak Espainia ordezkatzeko hautatu izana kategoria absolutuko nazioarteko lehiaketa ofizial batean, gutxienez, dagokion modalitate edo espezialitatean.
- Dagokion modalitatean, Munduko, Europako edo Espainiako lehiaketetako batean lehen 5en artean sailkatu izana.

Hastapenerako baldintza egokietan egiten da, 10 korapilora arteko haizearekin, eta honako **atalak** ditu:

Aparailu librea

- Ur-kiroletako materialak eta aparailu libreko ontziak hautatu, prestatu eta biltzea, horien ezaugarriak identifikatuz eta teknika egokiak aplikatuz.
- Sarrera eta irteera egokiak egitea, hondartzatik eta uretatik, teknika egokiak aplikatuz eta trebeziaz.
- Nahierako maniobrak eginez nabigatzea, ezarritako bandari eutsiz.

Aparailu finkoa

- o Ur-kiroletako materialak eta aparailu finkoko ontziak hautatu, prestatu eta biltzea, horien ezaugarriak identifikatuz eta teknika egokiak aplikatuz.
- o Atrakatzea eta desatrakatzea, teknika egokiak aplikatuz eta trebetasunez.
- o Nahierako maniobrak eginez nabigatzea, ezarritako bandari eutsiz.

APARAILU LIBREA

1. OHOLAREN PRESTAKETA

Hautagaiari behar den materiala aurkeztuko zaio, eta honako ekintzak egin beharko ditu:

Lehorrean:

- Jantziak aukeratzea, ingurune-baldintzak kontuan hartuta.
- Probarako gailu egokiak aukeratzea: ohol-mota, belaren, mastaren eta mastaren oinaren tamaina, ezpeleta, sokak, driza, aurtzak, aleroiak, sableak.
- Materialaren egora eta funtzionamendua egiaztatzea, segurtasun-elementuak barne, eta horiek ordezkatzeko akatsak izango balituzte edota hondatuta egongo balira.
- Soka-muturra hartu eta honako korapiloak egitea: lastegia, ballestrinke, zortzia, txiripa, kotea, "presilla de alondra".

Oholerako:

- Masta hartu eta belan sartzea.
- Mastaren oina kokatzea eta soka-mutur batekin belaren amula oina eustea.
- Ezpeleta kokatzea, mastari eutsiz altuera egokian.
- Bela-lokarria ezpeletaren atzealdeari eustea, soka-mutur egokia erabiliz eta bela tenkatuz, haizearen indarraren arabera.
- Sableak belan ipintzea tentsio egokiarekin.
- Masta-oineko soka-muturra berriz tenkatzea, baita bela-lokarriaren eskuturra ere, belari forma egokia emateko eta zimurrik izan ez dezan.
- Drizaren mutur bat ezpeletari eustea, eta bestea, masta-oinari.
- Aleroa ipintzea, jarrita ez baleuka.
- Ohola eta bela ur-ertzera hurbiltzea.

Ebaluazio-irizpideak

Aparailu libreko ur-kiroletako materiala eta ontziak hautatu, prestatu eta biltzea, horien ezaugarriak identifikatuz eta teknika egokiak aplikatuz.

- Jantziteria osatzen duten elementuak, norberaren segurtasuneko elementuak (salbamendu-txalekoa, kaskoa) eta oholak gobernatzeko nabigaziorako laguntzakoak (arnesa) hautatu dira.
- Aparailu libreko hasierako jarduerarako behar diren oholak, aurtzak, aleroiak, aparailuak, soka-muturrak, mastak, masta-oina eta ezpeletak hautatu eta prestatu dira.
- Azkar eta egoki egin dira honako sei korapiloak: lastegia, ballestrinke, zortzia, txiripa, kotea, “presilla de alondra”.
- Ohola eta aparailuak egoki kokatu eta ziurtatu dira, haizeari dagokionez.
- Bela makilan egoki sartu eta oholean aparailua tenkatu da.
- Ezpeleta, bela-lokarriaren eskuturra egoki muntatu dira eta oholean mastaren ainguraketa egoki egin da.
- Ohola egoki desmuntatu da, baita belak eta soka-muturrak oholean tolestu ere.

2. HONDARTZAN SARTU ETA BERTATIK ATERATZEA APARAILU LIBREKO ONTZIEKIN

Ohola uretatik hurbil dagoela, honako ekintzak egin behar dira:

- Ohola uretan ipini eta masta-oina garlingan sartzea.
- Ohola uretan ipintzea, haizearen norantza kontuan hartuz.
- Oholera igotzea, bela altxatzea eta nabigatzen hastea.
- Ur-ertzera hurbiltzea, lehorreratzeko, haizearen norantza kontuan hartuz.

Ebaluazio-irizpideak

Teknika egokiak aplikatuz eta trebeziaz:

- Ohola egoki uretaratu da 10 korapilora arteko haize-baldintzetan.
- Oholera igotzeko eta bela altxatzeko ekintza egokiak egin dira.
- Hondartzatik edo arrapatatik irtetea eta bertara hurbiltzea adierazi da, haizea alde eta kontra dagoela, 10 korapilora arteko haize-baldintzetan..
- Uretatik oholarekin irteteko prestaketa egoki egin da.
- Uretatik oholarekin irteteko maniobraren simulazioa egoki egin da.

3. APARAILU LIBREKO NABIGAZIOA

Ohola uretan dela, honakoak egin behar dira:

- Brankatze-posiziotik abiatuta, nabigatzen hasi eta ohola geldiaraztea.
- Haizeaz kontra nabigatzea haizealdean dagoen balizarantz, abanteko 5 bira eginda.
- Balizari bira egitea.
- Uretara erortzeko, oholera igotzeko eta bela altxatzeko maniobrak egitea.
- Poparantz nabigatzea baliza baterantz, biribileko 5 bira eginda.
- Balizari bira egitea eta hondartza, arrapala edo pantalanerantz joatea.
- Ohola eta gainerako tresnak biltzea.
- Belatik sableak kentzea.
- Bela tolestea.
- Driza biltzea.

Ebaluazio-irizpideak

Aparailu libreko ontziekin nabigatzen du, nahierako maniobrak eginez eta zehaztutako norabidea eutsiz, 10 korapilora arteko haize-baldintzetan.

- 1) Oholaren geldiarazte eta abiarazte ekintzak egin dira kontrol nahikoarekin.
- 2) Oholarekin oinarritzko maniobrak egin dira abantetik bira eta borobilean bira egiteko.
- 3) Balizak trebezia hartu dira ababorretik eta istriborretik.
- 4) Oholarekin honako maniobrak egin dira: norabide aldaketak haizearen kontra, zeharka, zabalean edo poparean nabigatuta, norabide egokiari eutsiz.
- 5) Tripulatazailearen oholeko mugimenduak eta ekintzak egiaztatu dira, baita arnesaren erabilera ere, haize-baldintzen eta aukeratutako bandaren arabera.
- 6) Jarduera-protokoloak aplikatu dira, honakoa egoeretan: desoreka, uretara erortzea, ohola berreskuratzea.
- 7) Bela aparailutik kendu da eta egoki bildu, masta ezpeleta kenduta eta soka-muturrak eta/edo soka-lerroak egoki bilduta.

APARAILU FINKOA

1) APARAILU FINKOKO ONTZIA PRESTATZEA

Hautagaiari behar den materiala aurkeztuko zaio, eta honako ekintzak egin beharko ditu:

Lehorrean:

- Jantziak aukeratzea, ingurune-baldintzak kontuan hartuta.
- Kasko-mota, bela, masta, ezpeleta, eskota, parpailo, aurtza, lema, sable egokiak aukeratzea.
- Soka hartu eta honako korapiloak egitea: lastegia, ballestrinke, zortzia, txiripa, kotea, "presilla de alondra".
- Masta hartu eta garlingan sartzea, abenkak eta estaia kadenoteetara finkatuz (beharrezkoa bada).
- Ontzia branka haize alderantz jartzea.
- Foka hartu eta girgilu batekin belaren amula ontziaren brankako kadenoteari eustea.
- Beste girgilu batekin, driza-muturra belaren driza-eskuturrean finkatzea.
- Drizaren beste muturretik tira egitea foka altxa arte, beharrezko tentsioa ematea eta pataska batean finkatzea, gainerakoa bilduz.
- Foka-eskota hartu eta belaren eskota-eskuturrari eustea eta muturrak eskoteretatik pasatzea, zortziko korapiloa eginez mutur bakoitzean.
- Nagusia hartu eta sableak ondo jarrita dituela egiaztatu; hala ez balitz, egoki jartzea.
- Nagusia hartu eta ezpeletan heltzea, brageraren arlinga ezpeletaren ildotik sartuz.
- Bela nagusiaren amula-eskuturra ezpeletaren burdinerian finkatzea.
- Brageraren soka-muturra, belaren eskota-eskuturraren soka-zulotik pasatzea, eta bere barailan finkatzea, tenkatuz.
- Nagusiaren driza hartu eta belaren driza-eskuturrean finkatzea girgilu edo lastegia baten bidez.
- Bergaduraren arlinga mastaren ildotik sartzea eta altxatzea, drizatik tira eginez.
- Bela altxatuta dagoela, drizari tentsioa ematea eta pataskan finkatzea, drizaren gainerakoa bilduz.
- Nagusiaren eskota ipintzea.
- Parpailoa edo trapa jartzea.

Ebaluazio-irizpideak

Ezaugarriak identifikatuz eta teknika egokiak aplikatuz:

- 1) Jantziteria osatzen duten elementuak, norberaren segurtasuneko elementuak (salbamendu-txalekoa, kaskoa) eta ontziak gobernatzeko nabigaziorako laguntzakoak (arnesa) hautatu dira.
- 2) Aparailu finkoko hasierako jarduerarako behar diren kaskoak, aurtzak, lema, soka-muturrak, eskotak hautatu eta prestatu ditu, baita belak, mastak eta ezpeletak ere.

- 3) Azkar eta egoki egin dira honako sei korapiloak: lastegia, ballestrinke, zortzia, txiripa, kotea, “presilla de alondra”.
- 4) Ontzia egoki brankatu da, haizeari dagokionez.
- 5) Egoki ezarri dira brankako belak.
- 6) Egoki ezarri da bela nagusia.
- 7) Behar diren ekintza teknikoak egin dira belak egoki doitzeko.
- 8) Belaontzia egoki antolatu da.

2) APARAILU FINKOKO ONTZIAREKIN ATRAKATZEA ETA DESATRAKATZEA

Ontzia uretan dela, honakoak egin behar dira:

- 1) Ontzia uretaratzea haizearen norabidea kontuan hartuta, orga uretan sartuz, ontziak flotatu arte.
- 2) Ontzira igo, lema ipini eta aurtza jaistea. Irtetea, haizearen norabidea kontuan hartuta.
- 3) Hondartza, arrapala edota pantalanera hurbiltzea, haizearen norabidea kontuan hartuta.
- 4) Hondartza, arrapala edota pantalanera iristea, geldirik. Hau da, abiadurarik gabe.
- 5) Ontzitik jauzi egitea eta horri eustea, hondoarekin edo pantalanarekin jo ez dezan.

Ebaluazio-irizpideak

Aparailu finkoko ontzia atrakatu eta desatrakatzen du teknika egokiak aplikatuz eta horiek trebeziaz eginez, 10 korapilora arteko haize-baldintzetan.

- Ontzia hondartza, moila, arrapala edota ontzitegitik uretaratu da, 10 korapilora arteko haize-baldintzetan.
- Irteera- edo hurbiltze-maniobra egiaztatua da kaia, hondartza, moila, pantalan, arrapala edo ainguratokira, haizea alde eta aurka dela, 10 korapilora arteko haize-baldintzetan.

3) NABIGAZIO-PROBA APARAILU FINKOKO ONTZIEKIN

Brankatze-posiziotik abiatuta, honakoak egin behar dira:

- Ontzia abiarazi eta geldiaraztea.
- Foka aurkako aldetik puztu eta ontzia geldirik mantendu.

- Ziatzea, bela nagusia aurkako aldetik puztuta.
- Haizeaz kontra nabigatzen hastea haizealde dagoen baliza baterantz, abanteko 5 bira eginda.
- Baliza inguratzea, bi bira eginez.
- Ontzia irauli eta drizatzea.
- Poparean nabigatzea baliza baterantz, biribileko 5 bira eginda.
- Buia inguratu eta hondartza, arrapala edota pantalanerantz joatea.
- Aurtza eta lema kentzea.
- Lehorreratzeko orga uretan sartu, ontzia gainean jarri, branka orgari lotu eta uretatik ateratzea, ontzia euskarrien gainean dagoela egiaztatuz.
- Ontzia jasotzea, bela nagusia eta foka bilduz.
- Sableak kentzea.
- Bela nagusia eta foka tolestea.
- Eskotak eta drizak biltzea.

Ebaluazio-irizpideak

- Ontziaren geldiarazte- eta abiarazte-ekintzak egin dira kontrol nahikoarekin, 10 korapilora arteko haize-baldintzetan.
- Abantetik biratze eta biribileko maniobrak egin dira, 10 korapilora arteko haize-baldintzetan.
- Balizak trebeziaz inguratu dira, ababor eta istriborretik.
- Ontziarekin honako maniobrak egin dira: norabide aldaketak, haizearen kontra, zeharka, luze edo poparean nabigatuta, norabide egokia eutsiz eta 10 korapilora arteko haize-baldintzetan.
- Aurtza egoki kokatzeko beharrezko ekintzak egin dira.
- Eskifaiaren mugimendu eta ekintzak erakutsi dira, baita trapezioaren erabilera ere, haize-baldintzen eta aukeratutako norabidearen arabera, ontziaren oreka egokiari eutsiz.
- Jarduera-protokoloak aplikatu dira desoreka edota ontzia iraulitako egoeretan.
- Brankari eta patroi edo lemazain lanak egin dira ibilbidean.
- Spinnakerra altxatu eta bildu da.
- Ontziaren mastak eraitsi dira, belak tolestuz eta eskotak eta drizak bilduta.

Oharra: Hautagaiak proba honetarako ekarri beharreko materiala bela-jarduerarako egokia izan behar da.